

Teletipoak

Dena urruti ordea, dena tele, jendea, bizitza, dena urruti. Pentsamendu sinple bat etortzen zait lantzean behin: zenbat modutara ikusten ahal da gauza bera? Nik ikusten dudana modu berean ikusten ahal du inork mundua? Ez bakarrik miopia, ez bakarrik betaurrekoak

larra; nik berdea esaten diodan kolore hori, berdin ikusten al dute besteek ere, haientzako ere berdea al da berdea?

Gerora aldatu egiten dira kezak, baina ez gehiegi. Nik mundua esaten diodan hori, mundua al da benetan? Nire mundua, zeinentzako da bere mundua? Nik ikusten dudana modu berean ikusten ahal du inork mundua? Eta erantzuna baiezkoa denean, zertan ikusten dugu berdin?



Jira
Xabier Gantzarain

Zer konpartitzen dugu denok, zer konpartitzen dugu berdin? Ezer konpartitzen dugu orokorkerietatik haratago? Lurra, mundua, garaia bai, giza arraza ere bai, gure kasuan hizkuntza ere bai. Diru asko batu omen du teletistik.

Dena urruti ikusten duen tipo bat naiz, teletipo bat.

Esplikazioak

Gertatu da berriz. Newtown eta Connecticut ikasiko ditugu oraingoan, eta polizien besarteetan kukututako haurren irudiak iltzatuko zaizkigu kanpo zein barne pantailetan. Edo izugarrikeriaren harridurak betzuloetatik irtenarazitako ninienak. Edo maingire zuriz estalitako gorpu txikiak. Edo Obamaren negarrarenak —o, bihotza durduzatu digute presidentearen malkoek—. 28 hilotz; 20 urteenak.

Eta esplikazio zerrenda ere bai, bitan banatuta. Batetik, errepertatu zaio Adam Lanza 20 urteko erasotzaile suizidaren izaerari zein buru osasunari: normala zela ba-

tzuek, bakartia bestetzuek, jendartean trauskila, isila, lotsatia... bada, autismoa zuela dioten ere. Nolanahi ere, behin eta berriz gertatzen den zerbaiten azalpena norbanako akastun baten erruan ardatzuta. Bestetik, esplikazio sozio-politikoak: AE-Betan armen jabetza edonoren eskura izatearen ondorioa da. Eta gogoratuko ditugu Columbine, Michael Moore eta Charlton Heston; bai atzerakoiak direla yankeeak!

Baina ez al zaigu ahazten Europa gurean ere gertatzen direla horrelakoak?

Eta, ohartu al gara itsasoaz alde bietako amorru-sarraskiak gizonetzuek egiten dituzela? Ez ote dute zerikusirik gizon izateri, gizon erakitzeari —maskulinitate erasaten diogun horri— ezarritako zama eta hersturek eragindako zauriekin?



Bira
Idurre Eskisabel

Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Zuzendariordea: Iñaki Pexarroman
Edizio arduraduna: Andoni Alvarez
Argitaratzailea: Euskal Editorea SM
Publizitatea: Eldera publizitatea
Lege gordailua: SS-0662/03
Batzorde parekidea: 071284059

Egoitza nagusia: Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain.
Telefonoa: (0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@bidera.eu
Harpidetza saila: (0034) 943-30 43 45

Date: 16/12/2012
Exemplaire: 2.944
Editore: Euskal Editorea S.L.
Directeur de publication: Martxelo Otamendi
Comission paritaire: 071284059
Delegation Labourd: Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008
Gasteiz: Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzioko faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzioko faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.
Lapurd: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

Gallardonon Zigor Kodea: kodea bider bi!

Jon-Mirena Landa

Zigor Zuzenbideko irakaslea EHUN

Ezagun asko egiten zaigu jadanik «presoaldi iraunkor eta berrikusgarria» aipatzen badugu, Gallardon Justizia Ministroak Zigor Kodearen gainean egin nahi duen aldaketaren barruan. Jakina da behin betiko kartzela zigorraren itzala antzematen dela oraindik erabat taxutu ez duten zigor berri horretan, bai terrorismo bai beste delitu larriak antza areago zigortzeko asmoz. Horrekin batera, aurrekoa gutxi balitz bezala, segurtasun-zaintza (*custodia de seguridad*) izenekoa ere aipagaia izan da. Segurtasun-zaintza berri hau ez da zigor berri bat, segurtasun-neurri bat baizik. Eta horra hor, segurtasun-neurritan alegia, non eta Zigor Kodearen aldaketarik garrantzitsuena egiteko zorian baitagoen. Azter dezagun.

Orain arte, Espainiako Zigor Kodean bi erantzun posible zeuden delitu baten aurrean. Bata, delitugilea «normal» (teknikoki egozgarria) bada. Eta, bestea, delitugilea normala ez bada («egotzina»), demagun arazo psikiatriko larriak dituelako. Lehenengoaren kasuan zigorra ezartzen da, egindako delituaren erantzun gisa. Zigorrekin gaitzesten da egindako delitua, eta mezu prebentiboa bidaltzen zaie gizarteari eta delitugile berari ere bai. Bigarrenaren kasuan, zigor zuzenbide normalak ez du zentzurik: arazo psikiatrikoak dituen pertsonak ez du ulertzen zigorra zer den, eta, gainera, zigorra bere ara-

zoak areagotu ahal izango litzuke are arriskutsuago bihurtzen. Hori dela eta, ospitale psikiatriko batean barnealdia ezarriko zaio ziurrenik, bertan medikuntza-sendabidea izan dezan. Barnealdi hori segurtasun neurrietako bat da, zigorrerik kanpoko beste logikan kokatzen dena. Ikusten den moduan bi egoera dauzkagu: pertsona normal (erantzuna: zigorra) eta ez-normalarena (erantzuna: segurtasun neurria) baina beti ere bata ala bestea ezartzen da salbuespen gutxi batzuekin.

Aitzitik, Gallardon Ministroaren kode-aldaketa gauzatzen bada, hau dena aldatzera doa. Lege-aurregitasmoaren Zioen Adierazpenean ezkatatu gabe, lotsa gabe, esaten den moduan, sistema «monista» batetik, sistema «dualista» baterako iraganbide orokorra bultzatu nahi da. Esan dezagun argiago: delitugile normalei zigorrak ez ezik, segurtasun neurriak ere ezarri nahi zaizkie. Biak batera! Dozenaka delitutan orain arte ezartzen den zigorrak gain, begipeko askatasuna (*libertad vigilada* izenekoa) ere ezartzeko aukera aurreikusten da, kartzelatik atera ondoren, esaterako, preso izandakoak hainbat obligazio bete beharko dituela (epaile aurrera azaldu beharra, leku jakin batzuetara joan ezin izatea...). Hortaz sare penala nabarmen hedatzen da. Eta dozenaka esaten dudanean, irakurleak ez dezala pentsa delituko larriak direnik, oso arinak diren delitutan ere aukera dago zabalik begipeko askatasunari ekiteko.

Baina begipeko askatasunaz gain, beste kasu mordotan (indarkeriazko delitutan, sexu-askatasu-

naren aurkakoetan, ondare-delitutan, eta abar) artikuluaurren hasieran aipatzen genuen segurtasun-zaintza ere ezartzeko izango da. Figura berri hau ezarriko da hain zuzen ere, egindako delitua hiru urtez baino presoaldi luzeagoz zigortzen denean. Hiru urteko zigorra eta aldeaz aurretik beste delituak egin izana: horietan datza segurtasun-zaintzari bidea zabaltzeko gakoa. Bost urteko zigoren kasuetan aurrekaririk gabe ere segurtasun-zaintza aplikatzeko da. Baina zer da segurtasun-zaintza? 10 urte gehiago barruan! Alegia, eta nabarduririk gabe, aukera izango da, zigorra bete ondoren, hamar urte gehiagor barnealdia luzatzeko. Hamar urtekoa da, egun, giza hilketa bantentzat aurreikusten den zigorra! Eta hori gutxi balitz, beste bost urte gehiago (jada hamabost) begipeko askatasunean.

Neurri hauen helburua birjausleak, alegia, behin eta berrit delitu egiten dutenak gehiago zigor-

Neurri hauen helburua birjausleak, alegia, behin eta berrit delitu egiten dutenak gehiago zigortzea da. Hori jadanik egiten zen indarrean dugun egungo Kodean. Berria dena da proportziorik eza

tzea da. Hori jadanik egiten zen indarrean dugun egungo Kodean. Berria dena da proportziorik eza. Erdi Aroan bazen figura bat, hiru-garren ebasketa egitegatik, heriotz-zigorra. Orain izan liteke hirugarren delitu ez larriarengatik hamahiru urte kartzelan eta beste bost gehiago begipean.

Gainera ez bakarrik segurtasun-zaintzaren kasurako, segurtasun-neurri guztietarako mugak desagertzen dira. Orain arte egindako delituaren arabera, halako muga ezartzen zen segurtasun-neurria ezartzeko. Ez dadila izan barnealdi psikiatrikoa edo bestelakoa zigorra bera baino askoz gogorragoa. Gaixorik dagoenaren aitzakiaz zenbat gastakeria ez ote diren egin historian zehar, ahalik eta horien kasuan ere giza-eskubideak —bermeak— deskubritu eta aplikatzen hasi ginen arte. Gallardon Ministroa, ordea, konturatu da ezin direla zigorrak gehiago luzatu, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak horren kontra joko zuelakoan. Horregatik «atzeko ate» bat topatu dute: ez diote deituko zigorra, segurtasun-neurria baizik. Ez dute onartuko segurtasun-neurriak luze joko duenik, neurri horiek berrikusteko mekanismoak omen daudela aitzakia jarriko dutelako. Legeari askoren beldurra bada, berrikusteko tresna ez baizik eta luzateko trikimailu besterik ez dela. Zigorren proportzioa apurtzeko trikimailua. Giza eskubideen kontrola gauditzeko trikimailua. Hitzak hitz kontzeptuak nahasteko trikimailua. Dugun Kodea gogorra da: Gallardon-ek dakarkiguna bada Kodea bider bi. Atera ditzagun kontuak!